

Etxealditik atzeraldira



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Birusaren ondoko gizartea ez da birusaren aitzinekoa bezalakoa izanen. Gaitzerdi, makurragoa ez bada. Aste hauetan zenbait jende kontrakoarekin ametsetan ibili bada ere, pandemiak ez du egungo sistema sozio-politikoak deseginen. Haren zuloak utzi ditu agerian. Aldatu beharra. Irauli beharra ere, agian. Alta, horrek ez du batere segurtatzen nagusituko diren errezetak bide horretatik joanen diren.

Giroan dago. Sarraski sanitarioari sarraski sozialak hartuko dio txanda. Izaitez, bateratsu gertatzen ari dira jada. Ospitaleetako ZIUak eta gorputegiak bete diren abiadura berean loditu dira langabeen zerrendak, ugaritu ERTEak. Etxealdiak hetsiarazi dituen enpresetarik franko ez dira berriz irekiko hura laxatzen denean ere. Bertze batzuek plantillak murrizturik izanen dituzte. Apaldurik ere urruntze neurriek indarrean iraunen dutenez, hilabete latzak iragartzen zaizkio turismoari, aisialdiari eta ostalaritzari.

Dirua aurrezteko aitzakian estatua mehetzea zer kario pagatzen den iza-

Etxealditik aterako gara atzeraldian sartzeko. Atzeralditik nola eta nora atera nahi dugun pentsatzen hasi behar genuke. Edo nora ez dugun atera behar

ten ari da, aunitzen iritiziz, krisi honetako ikasbideetariko bat. Agerian gelditu dira osasunari eta gizarte ongizate sistemari azken urteetan aplikatu zaizkion murrizketen ondorioak. Ospitaleak, ohe faltan. Osasungintzako langileek, baliabide eta materialak eskas. Zahar etxeetan, baldintza negargarriak. Batailaren ondoren geldituko zaigun panoraman gizarteak inoiz baino gehiago beharko du botere publikoetatik. Estatuak, ordea, inoiz baino esku lotuagoak izanen ditu, jarduera ekonomikoak elikatzen

baititu, oroz gain, administrazioaren diru-sarrerak. Bankuei eman zitzaizen dirua itzultzeko eta fortuna handiei beren abertzaletasuna zerga bidez erakusteko eskatzea izan liteke irtenbidea, baina ez dut uste halakorik ikusiko duten gure begiek. Europatik zerbait etorriko da. Hala ere, hobe horretan esperantza handirik ez izan.

Etxealditik aterako gara atzeraldian sartzeko. Atzeralditik nola eta nora atera nahi dugun pentsatzen hasi behar genuke. Edo nora ez dugun atera behar. Hedabideetan irakurtzen ari gara zein diren pandemiari aurre egiten ongi asmatu duten herrialdeak. Gurea ez dago horien artean. Ez estatuak, ez haien barrerako egitura autonomikoak. Dena ez zen egungo agintarien errua izanen, baina hori bost, ondorio praktikoei dagokienez. Jendea ez dago kontent, eta are haserreago egoteko arrazoiak izanen ditu. Mendebaldeko historia hurbilak erakutsi digu halako giroan aiseago loratzen direla faxismoa eta autoritarismoa, iraultzaren deia baino. Ez ahal digu atzeraldia beheraldia ekarriko. ●

